

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA



IRAUN, gailu elektronikoetan interesatuta dagoen edozeinentzat dago bideratuta. Gaur egun punta-puntakoak diren baliabide teknologikoak eskainiko dira, eta honetaz gain, etxean erabiltzen ez ditugun gailuak alokatzeko aukera ere izango da, era honetan, irabazi iturriak zabalduz.

- Merkatuaren segmentazioa oso zabala da, gaur egun biztanleriaren ehuneko oso handia abila delako azken teknologietan.
- Edozein adineko pertsonak alokatu ahalko dute baldin eta 18 urtetik gorako pertsonak badira.
 - Horrela ez bada, gurasoaren baimenarekin alokatu beharko du.
 - Arrazoia: arazoak ekiditea, eta produktuek erabilera egokia izango dutela ziurtatzea.
- Gehiegizko kontsumoa murriztea beharrezkoa da gure ondorengoek bizi baldintza egokiak izan ditzaten. Ondorioz, zerbitzu honekin, egunero erabiltzen ez ditugun gailuen kontsumoa murriztea dugu helburu.